



2011-03-30ean EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO  
DE LA CORPORACIÓN. Día 30-03-  
2011

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkateorde-Udalburua

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Zinegotziak

Ander Aguiriano Errasti  
Begoña Eraña Lazcano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Maider Otamendi Tolosa  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán.  
Unai Salaberria Mugica

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamaikako martxoaren hogeita hamarrean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Dorleta Leceta Uribetxebarria alkateorde andrea buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Lasagabaster, Barandiaran eta Urrutia jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día treinta de marzo de 2011, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia de la Primera Teniente de Alcalde-Presidenta Dña. Dorleta Leceta Uribetxebarria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Lasagabaster, Barandiarán y Urrutia.



## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2011ko otsailaren 23an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## 2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK

### 2.1.- ERABAKIAK

2011ko martxoaren 24ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

## 3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Dagokien batzorde informatzailearen diktamenik ez dagoenez batzordeetan quorumik egon ez delako, Udalbatzarrak aho batez berretsi du ondorengo gaiak gai zerrendan sartza

- Kale-baserrien izenak eta Bolibar, Gellao, Mazmela eta Mendiola elizateetako nahiz Lete auzoko baserrien izenak onartzeko proposamena.
- Mesedetako Amaren Fundazioak egindako diru laguntza eskaera.
- Mesedetako Amaren Fundazioaren estatutuak aldatzea: "Jose Arana fundazioaren estatutuak"
- 2010/2011 ikasturterako hezkuntza proiektutarako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak hasiera batean onartzea.
- Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarteentzako diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak hasiera batean onartzea. 2011. urtea.
- Euskararen normalkuntzarako diru laguntzak emateko araudia hasiera batean onartzea.
- Udal kirolegiari "Manuel Muñoz kirodegia" deitzeko proposamena.

*Udalburuak, AJaren 91. artikuluak ematen dituen eskumenak erabiliz, galde-eskeekin hasi aurretik ondorengo gaiak aztertzeko premiaz galdu dio Udalbatzarrari:*

*1. Telefono mugikor zerbitzuak ematen dituzten enpresek udalaren jabari publikoaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasarekin lotutako auzietarako ahalordea ematea abokatuari eta prokuradoreari.*

**2.- USURBILGO ITUNAK aurkeztutako mozioa.**

**3.- Intxaurtxueta 26, 2. ezk. helbideko etxebizitza esleitzeko deitutako prozeduran eskaera aurkezteko epea luzatzea.**

**Premia larrikotzat jotzeko arrazoia azaldu onoren, Udalbatzarrak aho batez, eta legezko gehiengo absolutuaren quorumarekin, gaiok aztertzea ERABAKI DU.**



#### **4.- AURREKO URTEETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei:

(*)KONTZEP/EPEA/Z KIA	ZENBATEK OA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
003/201002/1212	201,92	Miguel MEDIAVILLA MOLINA	Irakurketa akatsa
003/201003/1582	2149,94	Pedro SALEGUI GUENECHEA	Irakurketa akatsa
2009-271 MULTA	21,00	Francisco FERNÁNDEZ GALÁN	Preskribatuko multa.
2009-125 MULTA	21,00	Angel GÓMEZ GÓMEZ	Ahozko alegazioa onartuta
2009-195 MULTA	30,00	Europcar IB, S.A.	Europacarrek gidaria atzerriko helbidearekin identifikatu zuen.
2009-200 MULTA	30,00	José A. LEGORBURU Sz. De MATURANA	Prozeduraren akatsa (jakinarazpenaren falta)
2010MBPO0040	4222,31	Jabekideak- Santa Ana 14	Dagokion tarifa beste bat da

Bigarrena.- Zerrenda horretatik oker kobrautako ordainagirietako dirua itzultzea.

#### **5.- KALE-BASERRIEN IZENAK ETA BOLIBAR, GELLAO, MAZMELA ETA MENDIOLA ELIZATEETAKO NAHIZ LETE AUZOKO BASERRIEN IZENAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Kale-baserrien, Bolibar, Gellao, Mazmela eta Mendiola elizateetako baserrien eta Lete auzoko baserrien izenak eranskinean azaltzen diren bezala idazteko erabakia onartzea.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea interesatuei eta aldaketak eragindako entitate eta erakundeei.

#### **6.- UDALAREN ETA TELESKO UDAL TELEBISTAREN 2009KO ETA 2010EKO EKITALDIETAKO EKONOMIA ETA FINANTZA JARDUEREN KONTU-IKUSKAPENA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiak ezagutzen dute Hazienda batzorde informatzailearen diktamena.

Horren aurrean, Merino jaunak 2009ko eta 2010eko ekitaldietako kontuak ez ezik, 2007tik 2011ra bitarteko ekitaldietako kontuak (agintaldi honi dagozkionak) ikuskatzea proposatu du.

Aho batez erabaki da gaia mahaigainean uztea eta Merinoren proposamena Hazienda



batzordean aztertu eta diktaminatzea.

**7.- SABIN IRASTORZAK 2010eko ABENDUAREN 21eko UDALBATZARRAREN ERABAKIAREN KONTRA JARRITAKO BERRAZTERZEKO ERREKURTSOA EZEZTEKO PROPOSAMENA. ERABAKI HORREN BITARTEZ HILTEGIAREN ZERBITZU PUBLIKO ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN ZUZENEKO KUDEAKETA TOKIKO MERKATARITZA-SOZIETATE BATEN BIDEZ EGITEARI BURUZKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIO ETA OHARTARAZPENAK EZ ZIREN ONARTU.**

2010eko azaroaren 16ko datarekin sarrera eman zitzaion Udal honetan Sabin Irastorzak aurkeztutako alegazio idazkiari. Idazki horretan Hiltegiaren Zerbitzu Publiko eta Jarduera

Ekonomikoaren Zuzeneko Kudeaketa Tokiko Merkataritza-Sozietate baten bidez egiteari buruzko txostenari, laburbilduz, ondoko alegazioak egin zizkion:

**Lehena.-** Alegazioak aurkezteko epea 15 lanegunez luzatzeko eskabidea.

**Bigarrena.-** Zenbait alegazio (jarduera uzteko prozedura, zerbitzuaren kostuak, tarifak).

- A.- Zerbitzu uzteko prozedurari buruz.
- B.- Zerbitzuaren kostuei buruz.
- C.- Tarifei buruz.

2010eko abenduaren 21eko Udalbatzarraren erabakiaren bidez alegazio horiek eeztea erabaki zen, ondoko arrazoietan oinarrituta:

**“Lehena.- Alegazioak aurkezteko epea 15 lanegunez luzatzeko eskabidea**

Kontuan izanda proiektu honetan sarturiko lehenengo Udalean (Antzuolakoan) Txostenaren informazio publikorako epea hasi zenetik azken Udalean (Urretxukoan) epea amaitu den arte ia bi hilabeteko tartea igaro dela, hor alegazioak aurkeztu ahal izan direlarik, epea behar hainbat luzea izan da.

**Bigarrena.- Zenbait alegazio (jarduera uzteko prozedura, zerbitzuaren kostuak, tarifak)**

Proiektuaren interes edo herri-onura behar hainbat justifikaturik dago jendaurrean ikusgai jarritako Txostenean, bertan esandakoari gagozkiolarik.

**A.- Zerbitzu uzteko prozedurari dagokionez:**

Egia izanik zerbitzu mankomunatu bat kentzeko prozedura eta merkataritza-sozietate baten jarduerari uztekoa desberdinak direla, funsezko hau da: udal batek beti duela aukera irteteko bai zerbitzu mankomunatutik eta bai merkataritza-sozietatetik, aurretiaz beharrezko izapideak eta kitapenak eginda.

Dena den, zerbitzu publiko honen jarraitutasun-bermea ez dator bera kendu edo uzteko prozedura arinago edo astunagotik, baizik eta %100 kapital publikoa duen merkataritza-sozietatea osatzen duten Udalen borondate irmoan oinarritzen da.

**B.- Zerbitzuaren kostuei dagokienez:**



Udalek Hiltegiaren zerbitzu mankomunatuari azken urteotan egindako ekarpenen xehetasuna Sabin Irastorzari eman zion Mankomunitatearen kontu-hartzaileak Txostena jendaurrean ikusgai egon zen bitartean.

Etorkizuneko ekarpenen aurreikuspenari dagokionez, Txostenaren dokumentu horretan hainbat eszenatoki edo egoera posible agertzen dira udal-ekarpenen aurreikuspenarekin batera.

#### C.- Tarifei dagokienez:

Tasen nahiz prezioen araubidean irizpide objektiboak ezar daitezke zenbatekoa murriztu edo gehitzeko, tasa edo prezio hori duen zerbitzuaren erabileraren intentsitatearen arabera.”

2011ko martxoaren 7ko datarekin Udalbatzarraren erabakiaren kontra berraztertzeko errekursoa aurkeztu du erabaki hori deuseztatzeko eskatuz. Eskaera hori ondoko arrazoietan oinarritu du:

1. Hartutako akordioen ondorioz zerbitzu publikoari dagozkion hainbat babes kentzen direla:
  - Estatutuen aldaketa.
  - Zerbitzu irizpideak enpresa irizpideengatik ordezkatu.
  - Hiltegiaren izaera juridikoa aldatu beharra ondare ondasuna bihurtuz, haren izaeraren kontra joanez.

Zerbitzu publikoa erabiltzen da ekimen pribatuaren jarduera propioak diren salerosketa eta merkataritza lanak egiteko, ekimen pribatuarekin lehiakortasun ez leialean, interes publiko zalantzagarriarekin eta udaleko herritarrentzat onura gabekoak.

2. Baltzu berriaren kapital soziala ez da nahikoa, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 103 artikuluan jasotakoaren arabera.

#### **Zuzenbideko oinarrriak**

2011ko martxoaren 7ko datarekin Udalbatzarraren erabakiaren kontra berraztertzeko errekursoan adierazitako alegazioak ezetsi behar dira ondoko arrazoietan oinarritura:

#### **Lehenengo alegazioari** dagokionez ondokoa adierazi behar da:

- Memoria jendaurrean egondako epean, Udalean aurkeztutako alegazio-idazkian jaso zituen alegazio berberak egin ditu errekrutsogileak, arrazonamendu berberetan oinarritura, beraz, 2010eko abenduaren 21eko Udalbatzarrak hartutako erabakian emandako arrazonamenduak berretsi behar dira.
- Zerbitzu mankomunatua kendu eta merkataritza sozietate publiko baten bidez Hiltegi zerbitzuaren kudeaketa egitea nahiko arrazoitua geratu da aipatutako Memorial. Memoria hori Mankomunitatea osatzen duten Udal guztiak onartu dute aldez aurretik jarraitu beharreko jardunbide osoa izapidetu ondoren.
- Ondasunen izaera aldaketari dagokionez aipagarria da, Mankomunitateak 2010eko abenduaren 31n hiltegi zerbitzua emateari utzi ziola, eta izaera juridikoa



aldatzea baldintza “sine qua non” da Mankomunitatearenak ziren azpiegiturak merkataritza-sozietateari alokairuan emateko.

**Bigarren alegazioari** dagokionez ondokoa adierazi behar da:

- Memoriaren “finantza-alderdiak” atalean proiektuaren aurreikuspen ekonomikoak jasota dotoz, ondorioz, bertan jasotakoa berretsi egiten da.

Berrazterte errekursoaren arrazoia ikusita, ezeztatu beharra dago, izan ere, ez da atzematen 2010eko abenduaren 21eko erabakia indargabetzen duten datu berririk, ezta ere aurkaratzeko arrazoi berririk.

*Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Udalbatzarrak, Leceta jaunaren abstentziaarekin eta legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatzen duten gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:*

Lehenengoa.- Sabin Irastorzk 2010eko abenduaren 21eko Udalbatzarraren erabakiaren kontra jarritako Berrazterzko errekursoa ezeztea. Erabaki horren bitartez Hiltegiaren Zerbitzu Publiko eta Jarduera Ekonomikoaren Zuzeneko Kudeaketa Tokiko Merkataritza-Sozietate baten bidez egiteari buruzko txostenari egindako alegazio eta ohartarazpenak ez ziren onartu.

Bigarrena.-Erabaki honen auzi-errekursoa aurkez dezakezu EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta bihamarunetik hasita.

Hirugarrena.- Erabaki hau Sabin Irastorzari jakinaraztea.

#### **8.- MESEDETAKO AMAREN FUNDAZIOAK EGINDAKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

2011ko otsailaren 18an Mesedetako Amaren Patronoen Juntak diru laguntza eskatu zuen 2010eko maiatza baino lehen egindako zorrak ordaindu ahal izateko. Zorra 345.000 eurotakoa zen 2011ko otsailean.

Egindako eskaeraz gain, ondoren Fundazioak arrapala egin behar izan du gurpil-aulkian dauden erabiltzaileek kaletik sarbidea izan dezaten egoiliarrak bizi diren eraikinera.

Fundazioaren egoera ekonomiko larria egiaztaturik, Udalak berak Patronoen Juntarekin elkarlanean eta laguntza emateko Fundazioaren kontrol zuzena hartu baitu, Hazienda batzorde informatzaileak 30.000 euroko diru laguntza emateko proposamena egin zuen.

Aurrez esandakoan oinarrituz, eta bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Mesedetako Amaren Fundazioari 25.000 euroko diru laguntza ematea 2011ko martxoaren 15eko Alkate erabakiz baimendutako arrapala egiteko obrak finantzatzeko. Ordainketa faktura aurkeztu ondoren egingo da, Udaletxeko erregistroan dokumentu horri



sarrera eman eta hurrengo 10 egunen barruan. Gastua onartu eta 0301.781.313.80.01 partidaren kontura ordaintzeko agintza.

Bigarrena.- Mesedetako Amaren Fundazioari 5.000 euroko diru lagunza ematea Fundazioak 2010eko maiatza baino lehen egindako zorrak kentzeko. Kopuru hori berehala ordaintzeko agintza. Erakunde onuradunak lagunza zertarako erabili duen justifikatu beharko du ordainketa egiten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean. Gastua onartu eta 0301.481.313.80.01 partidaren kontura ordaintzeko agintza.

#### **9.- MESEDETAKO AMAREN FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA: "JOSE ARANA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK"**

Hitza eman ondoren, Pierrugues jaunak hitzez hitz transkribatzzen den ondorengo testu hau irakurri du:

*Ezer baino lehen, jarraian jorratuko dugun gaiari buruzko iritzia eman nahi dut. Gai hau Udalbaltzarrera ekarri da udal talde guztiak egungo Patronoen Juntak Jose Arana Fundazioko estatutu berrietaiko egindako proposamena ezagutu eta beraien ekarpenak egiten ditzaten bai Gizarte Zerbitzuetako batzordean bai osoko bilkuraren. Patronoen Junta ez zegoen horrelakorik egitera beharturik. Baina, udalbatzarrak zaharren egoitzari buruz izan dituen eztabaidea eta proposamenak ikusita, uste izan du askoz ere zentzuzkoagoa eta demokratikoagoa zela horrela egitea.*

*Eta demokratikoak dira, gure ustez, hona ekarri diren estatutuak, batez ere, aurreko Patronen juntak 2003-2007 agintaldian egin zituenekin alderatzen baditugu bai forma aldetik –ez ziren udalera ekarri eztabaideatzeko- bai eduki aldetik, presidente Eskoriatzako abadea zelako eta Patronatuko Junta honako hauek osatzen zutelako: abadeak, Alkateak, Gizarte Zerbitzuetako arduradunak, hiru herritarrek, erlijioso-elkarteko Ama Nagusia eta egoitzako zuzendaria.*

*Horiek dira aurreko eta egungo Patronoen Junten arteko funtsezko ezberdintasunak: formak eta edukiak. Eta hori guztiiori oinarri berarekin, hau da, estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen babesean eta legea jarraituz eginda.*

*Oroimen historikoa gordetzeko Eskoriatzako ospitaleen historia eta sarrera bat egin da Jose Aranburuzabala "Trankil" gure herriko historialariaren "Brevisima historia de los Hospitales en Eskoriatza" liburuan eta 1912ko martxoaren 15eko Errege Aginduz ongintza partikularreko bezala sailkatutako Eskoriatzako ospitale-egoitzaren erregelamendu organikoan oinarrituz. Beraz, datorren urtean ehun urte beteko ditu.*

*Estatutu horietan fundazioaren helburuak gordetzen dira, Patronatu fundatzaileen borondateari jarraitzen zaio eta Jose Arana izena berreskuratzen da Fundazioa izendatzeko. Horrela, Jose Arana izena jartzeko hasierako asmoa gauzatzen da. Estatutuen sarreran esaten den bezala, "Edateko ura ekartzeko sarea, eskola eta ospitalea egiteko" Eskoriatzako herriari emandakoarekin—200.000 pta 1908an-, Arana aitzindari agertzen zaigu gaur egun ongizate estatu bezala ezagutzen dugunaren oinarriak jartzeraoan: osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak.*

*Aurrez aipatu dudan bezala, estatutu berri hauen gauza nabarmenena gobernu organoaren osaera da: Patronoen Junta. Horrela, gobernu organoa anitzagoa izateko, eta beraz,*



*Eskoriatzan dauden sentsibilitate ezberdinen ordezkagarriagoa, bere garaian Udalbatzarrak egindako eskaerari erantzuten zaio.*

*Horrela, historikoki Patronoen Juntako presidente Eskoriatzako Alkatea edo abadea izan baldin badira, estatu berrieta aurreikusten da Patronoen Juntak berak aukeratuko duela presidentea, hau da, organo horren izaera presidentzialista baztertu eta izaera kolegiatuagoa ematen zaio.*

*Era berean, sarrera ematen zaio organo honetan Eskoriatzako jubilatuen elkarteari, adinagatik egoitzan sartzear egon daitekeen jende taldeari, bere ekarpenekin zaharren egoitza garatzen eta egoki gobernatzen lagun dezakeena. Eta sarrera ematen zaie ere langileen ordezkari bati eta egoiliarren edo beraien senideen ordezkari bati, horrela gobernu organoa demokratizatzu.*

Parte hartzea amaitu du.

Mesedetako Amaren fundazioaren estatutu berrien proposamena ikusirik, beste aldaketa batzuen artean fundazioaren izena bera ere aldatzen duena eta "Jose Arana Fundazioa" izena hartzeko.

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusirik, eta Merino jaunaren abstentzioarekin eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Mesedetako Amaren Fundazioko Patronoen Juntari beraien estatutu proposamenean ondorengo aldaketak egiteko proposatzea:

4. artikula.- Gobernu organoa:

\* Patronatuko Junta honako hauek osatuko dute:

Udaleko zazpi zinegotzi, ordezkari gehien dituzten udal taldeetatik aukeratuak.

**Kendu eta honako hau jartzea:**

*Zazpi alderdi bozkatuuenen ordezkari bana alderdiak ordezkaritza izan edo ez Udalean eta beraiek askatasunez ordezkari izatea erabakitzeten baldin badute.*

- 5. artikula.- Gobernu organoko kideak izendatzea.

\* Zinegotziak... **kendu eta honako hau jartzea:** Ordezkari politikoak...

- 7. artikula.- Izendapen-epea

\* **Honako hau gehitzea:** Parrokiako Juntaren eta Jubilatuen Elkartearen kasuan, beraien gobernu organoek erabakiko dute.

**10.- 2010/2011 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:



Lehenengoa.- 2010-2011 ikasturterako hezkuntza proiektuei diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **11.- GIZARTE ZERBITZUETAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA. 2011. URTEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin dute Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarteentzako diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea. 2011. urtea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **12.- EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Euskararen normalkuntzarako diru laguntzak emateko araudia hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.



Laugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea araudia onartu ondoren bertan araututako diru laguntzitarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

### **13.- UDAL KIROLDEGIARI “MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIA” DEITZEKO PROPOSAMENA.**

Agiriano jaunak jakinarazi du kiroldegiari “Manuel Muñoz kiroldegia” deitzeko proposamena Eskoriatza Kirol Elkartearen ekimen bati erantzunez egin dela.

Ondoren, bertso hauek bota ditu Manoloren omenez:

Manolo Muñoz gure “Presi”  
Zinez eskerrik asko  
Kirol elkartea zuzen gidatzen  
Zeu izan zara funtsesko  
Beti inkernuz, beti pasioz  
Taldean alde lan asko  
Ta partida ez da bukatu  
Gora gaztiak, gora Esko!

Egiten dizugu gorazarre  
Gizon haundi bati gisan  
Herri hontako seme kuttuna  
Nahiz kanpoan jaioa izan  
Kiroldegiko horma sendoak  
Izen gabe altxa ziran  
Zeure grazia jaso bezate  
Oroimenezko sarian

Proposamena bozkatzeko orduan bertaratuiek zalantza izan dute kiroldegiari zein izen jarri erabakitzerakoan: “MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIA” edo “MANOLO MUÑOZ KIROLDEGIA”, bere izena Manuel bazen ere, jendeak gehiago Manolo izenez ezagutzen zuelako.

Zalantza horren aurrean, aho batez ERABAKI DA kiroldegian bere oroimenez plaka jartzeko ekitaldi publikoa antolatzeko batzordearen esku uztea zein izen jarri.

Erabaki hori hartuta, Pierrugues jaunak eskatu du aktan jasotzea ondorengo parte hartzea: “Eskoriatzako kiroldegiari Manuel Muñoz izena jarrita bere bizi filosofiarekin eta kiroldegi baten esanahiarekin justizia egiten ari gara, hau da, elkarlanarekin, talde-lanarekin eta inurri lanarekin.”

### **14.- MOZIOA, GIZARTE ZIBILAREN “RUMBO A GAZA” EKIMENAREN IZENEAN.**

Hitza eman ondoren, Merino jaunak mozioaren xedapena irakurri du.

Aurrez eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta Pierrugues eta Salaberria jaunen abstentziarekin eta gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

1.- Gazako blokeoa gaitzestea eta berehala eta betiko deuseztatzeko eskatzea.



2.- 40 zaku zementu erostea, Rumbo a Gaza ekimenaren bidez Gazako zerrendara eraman eta han UNRWARI emateko; horrela, 2008-2009 urteetan Berun Urtua operazioan suntsitu ziren eskola, unibertsitate eta haurtzaindegia berreraiki ahalko dira.

3.- Rumbo a Gaza kanpainari laguntzeko bat itsas miliatarako bono erostea. Bono hauen helburua, ontziak erosi eta nabigatzeko eta bidaian gertatzen direnak kanpora jakinarazteko etab. behar duten guztiaz hornitzea da. Bono hau erosten denean, antolakuntzak erosleari aitorpen sinbolikoa egingo dio, ontziek Gaza hiriraino egin behar dituzten milietako baten jabe sinbolikotzat izendatzu.

4. "Koaderno bat, lapitz bat eta euro bat" kanpainari atxikitzea. Kanpaina honen helburua Gazako zerrendako haurrei oinarrizko eskola materiala ematea da. Horretarako, kanpaina honen zabalkuntza udalerriko eskola guztietan erraztuko da, eskola kontseiluaren bitartez, erraztu ere, eta 200 € jarriko ditu koadernoak eta lapitzak erosteko. Hauek Rumbo a Gaza ekimenak eramango ditu eta UNRWARI eman, honek bana ditzan.

5.- Eskoriatzako Udalak Spainiako Gobernuari eskatzen dio, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez, adierazpen hau Israelgo instituzio eskudunei jakinaraz diezaion; instituzio hauei dei egiten die, hartutako konpromisoak bete ditzaten, Palestinako herriaren giza eskubideak urra ez ditzaten eta flotaren segurtasuna berma dezaten.

6.- Eskoriatzako Udalak akordio honen berri komunikabideei jakinaraziko die.

7.- Gastu hori onartzeko beharrezko kreditua gaitzea diruzaintzako geldikinaren kontura eta erabaki horiekin hartutako konpromiso ekonomikoak betetzeko ordainketak agintzea.

***19:30ean Manuel Muñoz jaunaren senide batzuk eta Eskoriatza Kirol Elkarteko ordezkariak iritsi dira pleno aretoaren zendutakoaren izena kirolegiari jartzeko unean bertan izateko asmoarekin.***

***Gaia lehen jorratu den arren, berriz aztertzen da, etorri berrieik ekarpen handia egin dezaketelakoan izandako zalantzak argitzeko.***

#### **Kirolegiari "MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIA" deitzeko proposamenari buruzko erabaki berria.**

Horrela, hitza beraiei eman, eta Eskoriatza Kirol Elkarteko ordezkariak Udalbatzarraren jokaera eskertzeko hitza hartu ondoren, senideei eta kirol taldeko bazkideei galdetu zaie beraien ustez zein litzatekeen izen egokiena kirolegiari jartzeko.

Jasotako erantzunaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, kirolegiari "MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIA" deitza ERABAKI DU.

#### **15.- USURBILGO ITUNAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Merino jaunak aurrez horrela eskatuta, mozioaren testua irakurri du. Hona hemen horren transkipzioa:

*Hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaidea soziala puri-purian dago Gipuzkoan. Hondakinak , hau da, lehengaiak zabor bilakatzen dira gaikako bilketarik behar bezala sustatzen ez delako. Ondorioz birziklagarriak diren lehengaiak nahasita bildurik arazo bihurtu dira eta, aldi berean, gure osasuna eta*



*ingurumena kaltetuko lukeen errauste planta baten proiektua bultzatu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorioz, errauste plantaren proiektuak 580 milioi euroko kostua izango duenez, udalok kezkaz bizi dugu egoera, datozen hamarkadatan menpekotasun ekonomikoak kezkatzen gaituelako. Baina, aitzitik, udalok irizten diogu Gipuzkoan %80tik gorako birziklatze maila lortzen duten bilketa sistemak badaudela, eta hondakinen arazoari irtenbidea ematen diotela. Beraz, egoera honen aurrean udalerri honek zera onartzen du:*

- 1.- Hondakinen kudeaketa egiteko orduan gipuzkoarron osasuna lehenesten du irizpide gisa.*
- 2.- Osasunaz gain, hondakinak kudeatzeko orduan ingurumena kalte lezakeen edozein tratamendu baztertzen du.*
- 3.- %80tik gorako birziklatze maila lortzeko bideak dauden bitartean hondakin eta isurketa toxikoak eragiten dituen errausketaren bidea baztertzen du.*
- 4.- Hondakinak biltzeko orduan, Gipuzkoan indarrean dagoen 10/98 legea betearazteko konpromezua hartzen du, zeinak dioen 5.000 biztanle baino gehiago duen udalerriak derrigorrez materia organiko guztia gaika bildu behar den. Era berean, 5.000 biztanle baino gutxiago ditugun udalerriok ere lege honen edukiekin konpromezua hartzen dugu.*
- 5.- Gipuzkoan zero zabor programa garatzeko Zubietan egin nahi duten errauste plantari hiru urteko moratoria ezartza eskatzen dio Gipuzkoako Foru Diputazioari.*
- 6.- Errauste plantaren proiektuak 580 milioi euroko kostua duela kontuan hartuta eta udalbatzar honek ez duela ez eztabaidatu eta erabakirik hartu erabaki horren gainean, larritzat jotzen dugu proiektu honek hamarkadatan udal honi eragingo dion menpekotasun ekonomikoa.*
- 7.- La Caixari, Banestori eta ElBri eskatzen diegu lanposturik sortzen ez duen eta etekin ekonomikoak lortu asmoz ingurumena eta osasun publikoa kaltetzen duen proiektuaren finantzazioa bertan behera uztea.*
- 8.- Erabaki honen berri, herriko komunikabideez gain, Gipuzkoako Diputatu Nagusiari, Banestori, La Caixari eta ElBri jakinaraztea.*

Bozketa egin da, eta aurkako bi botoekin (Eraña andrea eta Leceta jauna), 2 abstentzioekin (Pierrugues jauna eta Salaberria jauna) eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin (Leceta andrea, Barandiaran jauna, Agiriano jauna eta Merino jauna) onartu da mozioa.

**16. TELEFONO MUGIKOR ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ENPRESEK UDALAREN JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUA ETA APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIKO TASAREKIN LOTUTAKO AUZIETARAKO AHALORDEA EMATEA ABOKATUARI ETA PROKURADOREARI.**

TELEFONICA MOVILES ESPAÑA S.A.U. eta FRANCE TELECOM ESPAÑA S.A. enpresek administrazioarekiko auzi errekursoak jarri dituzte Udalbatzarrak 2010-12-27an hartutako eta 246. zenbakiko GAOn argitaratutako telefono mugikor zerbitzuak ematen dituzten enpresek udalaren



jabari publikoaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa onartu zuen erabakiaren aurka.

Errekurtso horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegian jarri dira eta ondorengo prozedura zenbakiekin tramitatzan ari dira:

- 636/11-1 zenbakiko prozedura arrunta, 1. sekzioa- FRANCE TELECOM ESPAÑA S.A.k jarritako errekursoa.
- 603/11-1 zenbakiko prozedura arrunta, 1. sekzioa- TELEFONICA MOVILES ESPAÑA S.A.U.k jarritako errekursoa.

Bertaratutako udalbatzarkideek aho batez honako hau ERABAKI DUTE:

Lehenengoa.- Prozedura horietarako abokatu Ignacio Chacón Pacheco jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko abokatua, izendatzea.

Bigarrena.- Bilboko epaitegietako prokuradore Begoña Urizar Arancibia andrea prokuradore izendatu eta auzietarako ahalorde orokorra ematea.

Hirugarrena.- Madrilgo epaitegietako prokuradore Rocio Martin Echagüe andrea prokuradore izendatu eta auzietarako ahalorde orokorra ematea.

#### **17.- INTXAURTXUETA 26, 1. EZK. HELBIDEKO ETXEBIZITZA ESLEITZEKO DEITUTAKO PROZEDURAN ESKAERA AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA.**

Udalbatzarrak, 2011ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Intxaurtxueta 26, 1. ezk. helbideko etxebizitzazozketa bidez errentan emateko erabakia hartu zuen.

Esleipena arautzen duen baldintza ekonomiko-administratiboen agirian jarritakoaren arabera, eskaerak aurkezteko epea 15 laneguneko da iragarkia GAOn argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori datorren martxoaren 31n amaitzen da eta orain arte ez da eskaerarik izan. Gizarte Zerbitzuetatik lizitazioari zabalkunde handiagoa ematea proposatzen da eta horrekin batera eskaerak aurkezteko epea luzatzea.

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

-HILABETEZ Iuzatzea eskaerak aurkezteko epea erabaki honi buruzko iragarkia GAOn argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

19:40an Barandiaran jaunak bilera utzi du.

#### **18.- GALDERAK ETA ESKARIAK.**

Ez dago.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamar minututan. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**



### ESKORIATZAKO BASERRIAK

	<b>BOLIBAR</b>	<b>MAZMELA</b>	<b>MENDIOLA</b>	<b>GELLAO</b>	<b>LETE</b>	<b>BEREZIAK</b>
2	Abadetxe	Abadetxe	Areano	Altzalde	Arteaga	Arrupe
1	Agiriano	Agarrebekoa	Arretxena	Arangoitiazpikoa	Letegain	Urigen
3	Altzarte	Agarrekoika	Atxurdin	Arangoitierdikoa	Letegarai	Zapategi
4	Arizpe	Aingeruguarda	Batistena	Arangoitigaraikoa	Leterdikoa	
5	Artabilla	Aingeruguardabarri	Boliñaga	Elexondo	Santa Lutzia	
6	Atalluena	Altunena	Elixakoa	Etxabe		
7	Atxorrozpebekoa	Amorain	Emaldigain	Etxabeazpikoa		
8	Atxorrozpegoikoa	Andresena	Errotatxo	Etxebarrialdebekoa		
9	Axpe	Arane	Garate	Etxebarrialdegoikoa		
10	Axtroki	Benta	Goikosolo	Gellaogarai		
11	Azkarai	Bentaurrekoia	Iregi	Intxaundi		
12	Belarretxe	Boliña	Mintxeitxu	Iturbe		
13	Elixondo	Errota	Olabena	Mendizabal		
14	Erañagari	Etxebarri	Patzikuena	Santakoa		
15	Erañagoiti	Etxenausi	Sagastizar	Soloeta		
16	Erañalde	Etxenausitxiki	Uriaga	Unbe		
17	Erañazabal	Galdotzenabarri	Uxarte	Urieta		
18	Erañazpi	Ikaraun				
19	Errota	Iñarrena				
20	Esibai	Iramain				
21	Etxebarri	Isasibiribil				
22	Galartzaetxe	Iturralte				
23	Garaikoa	Kamandula				
24	Garroena	Kamiñeruena				
25	Iraeban	Kaparrategi				
26	Iturgain	Kapelena				
27	Jausoro	Kuatruena				
28	Jokalenea	Obraderokoa				
29	Karogi	Osiñalde				
30	Lapatza	Tontortxo				
31	Motzena	Txola				
32	Muñagorri	Uradarion				
33	Nordebizi	Uradarionbarri				
34	Olabe	Urazandi				
35	Olagoiti	Zaloña				
36	Osiñeta					
37	Otzaibe					
38	Sakristaukoa					
39	Ugatzubekoa					
40	Uratz					
41	Uratzalde					



42 Uribe

43 Zubieta

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 23 de febrero de 2011.

## **2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA Y RESOLUCIONES**

### **2.1.- RESOLUCIONES**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 24 de marzo de 2011 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

## **3.- Ratificación sobre inclusión de asuntos en el orden del día.**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión dentro del orden del día de los siguientes asuntos que, por falta de quórum, no han sido dictaminados por la Comisión Informativa correspondiente:

- Propuesta de aprobación de la nomenclatura de los caseríos de las anteiglesias de Bolibar, Gellao, Mazmela y Mendiola, de Lete auzoa y de los pertenecientes al casco urbano
- Solicitud de ayuda cursada a instancia de la Fundación Ntra. Sra. de las Mercedes.
- Modificación de los estatutos de la Fundación Ntra Sra. de las Mercedes: "Estatutos de la Fundación Jose Arana"
- Aprobación inicial de las bases específicas que regulan la concesión de subvención a proyectos educativos del curso escolar 2010/2011
- Aprobación inicial de las bases Bases por la que se establecen las normas para la concesión de subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en Servicios Sociales. Año 2011.
- Aprobación inicial de la Normativa referente a las subvenciones para la normalización del uso del euskera.
- Propuesta de que al polideportivo municipal se le llame "Manuel Muñoz kiroldegia".

***La Presidenta, en uso de las facultades que confiere el art. 91 Del R.O.F, somete al Pleno del Ayuntamiento la urgencia de tratar los siguientes asuntos antes del inicio del punto de "ruegos y preguntas":***

***1.- Apoderamiento de abogado y procurador para pleitos relacionados con la Tasa por la Utilización Privativa y el Aprovechamiento Especial del Dominio Público Municipal a favor de empresas que prestan servicios de telefonía móvil.***



**2.- Moción que presenta el PACTO DE USURBIL.**

**3º.- Ampliación de plazo para presentar solicitudes en el procedimiento convocado para la adjudicación de la vivienda sita en el 2º izquierda de Intxaurtxueta auzoa.**

**Tras justificar la urgencia, el Pleno, por unanimidad, y con el quorum de la mayoría absoluta legal, ACUERDA tratar dichos asuntos antes del punto de ruegos y preguntas.**

**4.-Baja de derechos reconocidos en ejercicios anteriores.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Dar de baja a la siguiente relación de derechos reconocidos en ejercicios anteriores.

(*)CONCEPTO/PLAZO/Nº	CANTIDAD (€)	CONTRIBUYENTE	MOTIVO
003/201002/1212	201,92	Miguel MEDIAVILLA MOLINA	Error de lectura
003/201003/1582	2149,94	Pedro SALEGUI GUENECHEA	Error de lectura
2009-271 MULTA	21,00	Francisco FERNÁNDEZ GALÁN	Multa prescrita
2009-125 MULTA	21,00	Angel GÓMEZ GÓMEZ	Estimación de la alegación oral
